

Laneko segurtasun eta osasun politika

BATZek xedea elkarrekin mundu hobe eraikitzea, mugikortasun-konponbide global, berritzaile eta jasangarrien bidez dela adierazten du. Horretarako, Zuzendaritzak xedea betetzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak emateko, hala nola hura lortzeko ezarritako ekimenetan interes-talde guztiak motibatuz eta inplikatuz konpromisoa hartzen du.

Lan-bizitzaren kalitatea, lan-ingurune seguru eta osasungarri batekin bateragarri egitearen garrantziaz jabetuta, **jarduteko printzipio orokor** hauek ezartzen dira Lan Segurtasun eta Osasun arloan:

- **Lan-baldintza seguruak eta osasungarriak** ematea, gure langileen osasunaren kalteak edo narriadurak prebenitzeko.
- **Lan Segurtasun eta Osasunaren (LSO) kudeaketa erakundearen maila guztietan integratzea**; horretarako, eratorritako ardurak definituko dira eta hauek zuzen gauzatzeko, baliabide zein formazio egokia zehaztuko da.
- BATZeko zentroetan lan egiten duten **pertsona** guztiek BATZek LSO-aren inguruan ezarritako arauak **ezagutu eta bete behar dituzte**, hala nola baliabideak modu seguru eta arduraz erabili, **laneko arriskuak prebenitu eta minimizatzeko helburuarekin**.
- **Langileak** zein hauen **ordezkari guztiak, LSO sistemaren kudeaketan kontsultatuak, trebatuak eta parte hartzeko aukera** dutela ziurtatu.
- LSO arlorako **helburu eta jomugak** ezarri, **politikaren konplimenduan aurrerapausoak emateko**. Printzipio legez langileen LSO-aren **etengabeko hobekuntza** hartuta; **arriskuak ezabatuz, galzoriak murriztuz, lan-baldintzak hobetuz eta osasuna sustatuz, indarrean dagoen legeria eta sinatutako beste baldintza batzuk** betez.

Politika honen barne komunikazioa egiten da, eta erakundeko interes-talde guztien eskura dago.